



Elخالde auzoa, 9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tel.: 946 842 999 – 946 844 025
Faxa: 946 243 470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

ISPASTERKO UDALEAN «ZERBITZU ANITZETAKO LANGILEEN LAN-POLTSA» OSATZEKO HAUTAKETA-PROBEN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK

LEHENENGOA.- Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea Ispasterko Udaleraiko «zerbitzu anitzetako langileen lan-poltsa» eratzea da hainbat eratako beharrak betetzeko, hala nola hutsik geratutako lanpostuak, deitutako lanpostu koitunturalen ezaugarri berberak dituzten ordezkioak edota aldi baterako sortzen diren zerbitzu-beharrak, guztiak ere aldi baterako lan-kontratudun langile izendapenez. Era berean, lan-poltsa hau 2019ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

Lan-poltsa hau eratzean eta kudeatzean, honako printzipio hauek errespetatuko dira:

- Lan-poltsa deitzeko eta bertara sartzeko betekizunen publizitatea.
- Berdintasuna, enplegu publikoa eskuratzeko baldintza orokorren eta lanpostuen betekizunen arabera.
- Merezimendua eta gaitasuna, izangaiak lan-poltsan sartzeko erabilitako irizpideak, eta bertan lorturiko ordena baldintzatzen dutenak.
- Lan-poltsak eratzeo eta kudeatzeko prozesuaren kudeaketa gardena izatea.

Hona hemen lanposturen definizioa:

- Postua: zerbitzu anitzetako langilea.
- Eskala: administrazio berezia.
- Azpieskala: zerbitzu bereziak.
- Taldea: C2.
- Hizkuntza-eskakizuna: lehen hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa (nahitaezkotasun-data beteta).

Era berean, lan poltsa hau azpi-taldeetan izan daitezkeen beharrianetarako ere erabili ahal izango da.

Aukeraketa-prozesua deitu da, eskuratze askeko txandan, «lehiaketa-oposizio» sistemaren bitartez.

Lan-poltsa osatzen duten pertsonak ez dute eskubide ekonomikorik izango harik eta kontratuak egiten diren arte.

Kontratazioa langileak ordezkatzeko egiten bada, aukeraturiko pertsonekin izenpetuko den kontratua Ispasterko Udalaren beharretara egokituko da, aldi baterako lizentziengatik edo bajengatik, eta lizentzia horiek betetzeko beharrezko iraunaldia izango du kontratuak.



Elexalde auzoa, 9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tel.: 946 842 999 – 946 844 025
Faxa: 946 243 470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

BIGARRENA.- Funtzioak.

Lan-poltsa honetako postuaren egitekoak lanpostuaren balorazioan ezarritakoak izango dira; hain zuzen ere, Udaltzak 2015eko maiatzaren 19an onartutakoak:

1.- Obra zibila:

- hormak, murrak eta tankerakoak konpontzea;
- iturgintzako eta elektrizitateko ofizialekin lankidetzan jardutea igeltserotza-lanak behar dituztenean, arketak, seinaleztapenak eta abar ipintzeko;
- enkofratzeak egitea, sare-begiak eta errefortzu-altzairuak instalatuta, murrak eta forjaketak eraikitzeko;
- landa-bideak eta zangak asfaltatzea eta bide-zuloak prestatzea;
- espaloietan baldosak ipintzea.

2.- Bide eta eraikin publikoen mantentze-lanak:

- lokal publikoen, burdin hesien, bankuen, baranden, kale-argien, zentro publikoetako altzarien eta tankerako mantentze- eta pintaketa-lanak egitea;
- farolak eta eraikin garaiak aldi behin margotzea, garabietara edota aldamiotara igota;
- bankuak eta bestelako hiri-altzariak ipintzea eta konpontzea;
- bideetako seinaleak margotzea;
- fatxadak presio-urez, hondar zurrustaz eta produktu kimiko egokiz garbitzea;
- ibilgailuak gidatzea, pertsonak eta materialak eramateko;
- behar den materiala berriz jartzeko eskatzea;
- zentro publikoetako altzariak eramatea, agertokiak muntatzea eta desmuntatzea, lokal publikoak fumigatzea, kanalak garbitzea eta konpontzea,
- teilatuak konpontzea eta abar;
- laneko tokiak segurtasun-hesiekin eta -seinaleekin ziurtatzea.

3.- Lorezaintza eta apaingarriak:

- parkeak, lorategi-eremuak, bideak eta tankerakoak garbitzea eta haietako sastrakak kentzea;
- zuhaitzak landatzea, kimatzea eta ebakitzea;
- heskaiak moztea eta kimatzea;
- herbizidekin eta pestizidekin fumigatzea;
- jardinerak ipintzea, lurrez betetzea eta landareak ipintzea;
- mintegi hornitzaileetatik landare egokiak aukeratzea eta jasotzea;
- eraikin publikoetako barne-lorezaintzaren zainketa- eta mantentze-lanak;
- eremu berdeak prestatzea, haien mantentze-lanak egitea eta berriro landatzea;
- materiala eta adarrak garraiatzeko dumperra gidatzea;
- kimatzeko makinak eta tresnak gidatzea edo erabiltzea.



Elexalde auzoa, 9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tel.: 946 842 999 – 946 844 025
Faxa: 946 243 470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

4.- Iturgintza-lanak:

- matxurak topatzea eta edateko uraren eta saneamenduen hornidura-sareak konpontzea;
- sarean hondatuta dauden elementuak ordeztzea eta sare berriak muntatzea;
- edateko ura eteteko eta hornitzeko maniobrak egitea.

5.- Ehorzketa-lanak:

- hilerriko instalazioak irekitzea eta ixtea publikoarentzat, dagokion ordutegietan;
- hilotzak ehorztea, hobitik ateratzea eta eramatea;
- errausketa-labeko garraioak eta senitartekoei laguntzea;
- erregistro-liburuak eguneratzea, eta dokumentazioa kontrolatu eta udaletxera eramatea;
- nitxoen eskaeren parteak egitea, nitxo-zenbakiak ipintzea eta udaletxera eramatea, erregistratzeko eta haien berri emateko;
- hilerrira joaten diren senitartekoei harrera egitea;
- instalazioak garbi eta txukun edukitzea.

6.- Garbiketa-lanak:

- instalazioak irekitzea eta ixtea, ezarritako ordutegian;
- instalazioetako argiak piztea eta itzaltzea;
- pertsonen sarrera eta irteerak zaintzea eta kontrolatzea;
- zentroko instalazioek ondo funtzionatzen dutela egiaztatzea;
- instalazioak garbi daudela gainbegiratzea (belar-zelaiak, aldagelak, harmailak...);
- kirol-instalazioetako zakarrontziak, hautsontziak eta gainerako tresnak garbitzea eta hustea;
- instalazioetako gelak eskobatzea eta lanbasa pasatzea (dutxak, komunak eta aldagelak).

7.- Bestelakoak:

- tailerreko materialak eta izakinak txukun eta behar bezala daudela zaintzea;
- lan-ekipoak, instalazioak, produktuak, bitartekoak eta babeserako ekipamenduak behar bezala erabiltzea, segurtasun-arauak kontuan izanda;
- arduradun zuzena berehala jarriko du jakinaren gainean, laneko segurtasunerako edo osasunerako arriskurik sortuko lukeen egoeraren bat ikusiz gero.

Lanaldia Ispasterko Udalak berak finkatuko du ezarritako zerbitzurako urtean-urtean, betiere lanpostuaren izaera eta berariazko beharrak kontuan izanik.

Lan-ordutegia eta -egutegia Ispasterko Udalak berak adieraziko ditu, Obra eta Zerbitzu Brigadarako oro har.



Elexalde auzoa, 9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tel.: 946 842 999 – 946 844 025
Faxa: 946 243 470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

HIRUGARRENA.- Hautagaien betekizunak.

1.- Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, honako betekizun hauek bete beharko dira:

a) Espainiako edo Europar Batasuneko estatu kideren bateko herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraikiz, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako herritartasuna dutenen ezkontideek parte hartu ahal izango dute, betiere, zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude; herritartasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta ezkontideak zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Era berean, lan-kontratudun langile izanik, Espainiako estatuan bizi diren eta aurreko paragrafoetan sartu ez diren atzerritarrek ere parte hartu ahal izango dute. Aukeratzten badituzte, egiaztatu beharko dute administrazio baimenaren jabe direla kontratuaren xedeko jarduera egiteko, betiere kontratua formalizatu baino lehen.

b) Hamasei (16) urte beteta edukitzea eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik, eta nahitaezko erretiro-adina ez izatea.

c) Titulazio akademikoa: Eskola-graduatu, Oinarrizko Batxilergoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza-HSAOL, lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea, edota haietakoren bat eskuratzeko moduan egotea eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean. Titulazioa atzerrian eskuratu duten izangaiek egiaztatu beharko dute badaukatela dagokion baliozkotze-agiria edo, hala badagokio, homologazioa ziurtatzen duen agiria.

Administrazio eskudunak horretarako emandako egiaztagiriaren bidez aurkeztu beharko du baliokidetza izangaia.

d) Lanpostuei dagozkien atazak edo funtzioak normaltasunez betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

e) Edozer administrazio publikoren zerbitzuetatik edota autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organoetatik diziplina-espeditente bidez baztertua ez egotea edota ebazpen judizial bidez desgaitasun absolutu edo berezirik ez edukitzea lanpostu edo kargu publikoetarako, funtzionario-kidego edo eskalara sartzeko, edota lan-kontratudun langile moduan egiten zituen edo baztertua edo desgaitua izan zen antzeko funtzioak burutzeko. Beste estatu bateko herritarra bada, ez egotea desgaituta edo horren pareko egoeraren



Elexalde auzoa, 9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tel.: 946 842 999 – 946 844 025
Faxa: 946 243 470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

batean, eta bere Estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinako zehazpenik edo horren parekorik ez izatea.

f) Ez egotea sartuta inolako legezko desgaiakuntza- edo bateraezintasun-auzitan, administrazio publikoen zerbitzupeko langileen bateraezintasunei buruz indarrean den araudian aurreikusitako moduan.

g) C1 gidabaimena.

h) Lehen hizkuntza-eskakizuna edo apirilaren 8ko data duen eta euskararen egiaztagia egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzekoa den 64/2008 EDren arabera parekoa egiaztatzea.

2.- Deialdian parte hartu nahi dutenek, eskabideak aurkezteko epea amaitzean, eskatutako betekizun guztiak bete beharko dituzte, eta hautaketa-prozesuak iraun bitartean mantendu.

LAUGARRENA.- Eskerak eta onarpena.

Izangaiek deialdian oinarrian eskaturiko baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi behar dute eskaeretan; eskaera horiek Alkatetzara zuzenduko dira eta Ispasterko Udalaren Erregistro Nagusian (Elexalde auzoa, 9, Ispaster, Bizkaia) aurkeztuko, behar bezala beteta, 20 lan eguneko epean, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Aurkezteko azken eguna ez bada baliaduna, dagokion hurrengo egun baliadunean aurkeztu ahal izango da.

Eskabideak aurkezteko, eredu ofiziala bete beharko da. Ispasterko Udalaren webgunean (www.ispaster.net) eskura daiteke esandako orria, bai eta Ispasterko Udaleko Erregistro Nagusian ere.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 16.4. artikuluan (urriaren 1eko 39/2015) zehaztutako gainerako lekuetan ere aurkez daitezke.

Posta-bulegoen bitartez aurkeztutako eskabideek gutun-azal ireki baten barnean egon beharko dute, posta-bulegoko langileek, ziurtatu aurretik, data eta zigilua jar ditzan horietan.

Izangaiek eskabideetan emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da; datu horiek hautaketa-prozesua kudeatzeko bakarrik erabiliko dira, bai eta administrazio honetan aldi baterako kontrataziorako sortuko den lan-poltsa kudeatzeko ere. Fitxategi horren erabilera eta funtzionamendua datu pertsonalak babesteko Lege Organikoaren (abenduaren 13ko 15/1999) eta datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko Legearen (otsailaren 25eko 2/2004) esanetara egokitu beharko da.



Elexalde auzoa, 9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tel.: 946 842 999 – 946 844 025
Faxa: 946 243 470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

Eskabideetan zehaztu beharrekoak:

- a) Datu pertsonalak osoak.
- b) Oposizio-faseko ariketak zer hizkuntza ofizialetan egin; hau da, euskaraz ala gaztelaniaz.
- c) Urritasunak dituzten pertsonak beren ezaugarriaren berri eman beharko dute; era berean, adierazi beharko dute, hala dagokionean, zer egokitzapen tekniko behar dituzten hautaketa-prozesuak egin ahal izateko. Urritasuna egiaztatzeko agiriak ere aurkeztu beharko dituzte.
- d) Izangaiek deialdiaren oinarrietan banan-banan aipaturiko baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute eskaerak aurkezteko epea amaitzean.
- e) Aurkeztutako titulazioa, parte hartzeko betekizun den aldetik.

Eskabidearekin batera, honako hauek ere aurkeztuko dira:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo, atzerritarren kasuan, agiri baliokidearen fotokopia (konpultsatu gabe).

Aurkeztutako merezimenduen egiaztagiria oposizio-fasea gainditu duten hautagaiei bakarrik eskatuko zaizkie, esandako merezimendu horiek frogatzeko eta ondoren balioesteko.

Eskabideak entregatzeko epearen barruan aurkeztutako merezimenduak bakarrik balioetsiko dira.

Ehuneko 33ko edo gehiagoko urritasun-maila duten pertsonak denbora- eta bitarteko-egokitzapenak jakinarazi beharko dituzte, hautaketa-probak gainerako hautagai guztien baldintza berberetan egin ahal izateko.

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Ispasterko Udaleko Alkatetzak izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, hurrengo 15 egunen barruan. Ebazpen hori Udalaren iragarkien edota ediktuen taulan, webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Zerrenda horretan, baztertutako izangaiak zergatik baztertu diren adieraziko da, eta 10 egun balioduneko epea emango zaie bazterketa horren aurkako erreklamazioa egiteko eta bazterketa eragin duten faltak konpontzeko edo agiriak aurkezteko, hala zehazten baitu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015), hain zuzen ere, 68. artikuluan. Erreklamazioak egiteko epea amaitutakoan, izangaiak onartu ala baztertu erabaki zuenak ebatziko ditu erreklamazioak.

Erreklamaziorik izango ez balitz, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira automatikoki. Erreklamaziorik izanez gero, beste ebazpen batez onetsi edo ezetsiko dira; ebazpen horren beraren bitartez onartuko dira behin betiko zerrendak, eta aurreko modu berean argitaratuko dira.



Elexalde auzoa, 9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tel.: 946 842 999 – 946 844 025
Faxa: 946 243 470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

Behin betiko zerrendetan bazterturiko pertsonen zerrenden kontra erreklamazioa aurkeztu badute epearen barruan, probak egitera aurkezteko aukera izango dute kautelazko neurri legez, betiere egun horretarako errekurtsua ebatzi ez badute.

Behin-behineko zerrendekin batera, oposizio-faseko lehen ariketen eguna, ordua eta tokia argitaratuko dira, baita Kalifikazio Epaimahaiaren eraketa ere (bai titularrak, bai ordezkioak). Kalifikazio Epaimahaiak emango du hurrengo ariketen berri, Udalaren iragarkitaulan eta webgunean argitaratuta.

BOSGARRENA.- Kalifikazio Epaimahaia.

Hautaketa-organoa kide anitzekoa izango da, eta haren osaera kideen inpartzialtasun eta profesionaltasunaren printzipioetara egokitu beharko da; era berean, emakume eta gizonen arteko berdintasunera joko da.

Kalifikazio Epaimahaia honela egongo da osatuta, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen (uztailaren 6ko 6/1989) 31. artikulua eta Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Errege Dekretuaren (urriaren 30eko 5/2015) 60. artikulua zehaztuta bezala:

Epaimahaiburu bat, idazkari bat eta lau mahaikide izango ditu.

Kalifikazio Epaimahaiak aholkulari espezialistak hartu ahal izango ditu hautaketa-prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako; horiek beren espezialitate teknikoetan soilik jardungo dute, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen (uztailaren 6ko 6/1989) 31.4. artikuluan ezarritakoaren arabera, beren espezialitateak ematean aholkularitza eta laguntza teknikoa emanez. Hala, hitza bai, baina botorik ez dute izango.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen (urriaren 1eko 40/2015) 23. artikuluan jasotako inguruabarretako bat izanez gero, Kalifikazio Epaimahaiko kideek ez dute esku hartuko eta Alkatetzari emango diote horren berri. Hautagaiak Kalifikazio Epaimahaiko kideak ezetsi ahal izango dituzte, aipatutako Legearen 29. artikuluekin bat etorritik aurreko artikuluan jasotako kasuren bat gertatzen denean.

Kalifikazio Epaimahaia eratzeko, gainera, idazkari eta ordezkotzarik gabeko kidezetako titularrekin batera, ordezkioak ere izendatu behar dira. Epaimahaia ezin daiteke eratu, ezta aritu ere, kide titular zein ordezkioen kopuruaren erdia behintzat agertzen ez bada.

Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik; azken horrek ez du botorik izango. Kalifikazio Epaimahaiaren erabakiak agertu diren epaimahaikideen botoen gehiengoaren bidez hartuko dira; berdinketa gertatuko balitz, mahaiburuaren botoak erabakiko du. Kide anitzeko organoko titularrak kanpoan edo gaixorik izanez gero, edo, oro har,



Elexalde auzoa, 9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tel.: 946 842 999 – 946 844 025
Faxa: 946 243 470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

bidezko arrazoirik bada, ordezkoa jarriko da haren tokian. Epaimahaibururik izan ezean, kanpoan izanez gero, gaixorik bada edota legezko beste arrazoiren gertatzen bada, ordezkoak hartuko du haren lekua, eta ordezko hori izan ezean, epaimahaiko kideen artean hierarkia-maila aplikatuko da; hain zuzen, antzintasun eta adin handiena duena -hurrenkera horretan-. Tarteren batean idazkaririk ez balego, faltako balitz edota gaixorik izanez gero, ordezkoak hartuko du haren lekua aldi baterako, edo haren erabakiz, besterik ezean.

Kalifikazio Epaimahaiko kide guztiek hautagaiei eskatutako maila bereko titulu akademikoa edo handiagoa izan beharko dute, eta hautaketaren xedeko lanpostuaren jakintzarlo berekoa.

Epaimahaiak ager daitezkeen zalantzak ebazteko ahalmena izango du, bai eta, oinarri hauetan jaso gabeko guztietan, hautaketa-prozesuko ordena egokirako beharrezko erabakiak hartzeko ere.

Kalifikazio Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen zerrenda hautaketa-prozesurako onartuen eta baztertuen zerrendarekin batera argitaratuko da, aurrez Alkatetzak izendatu ostean.

Jakinarazpenetarako eta gainerakoetarako, Kalifikazio Epaimahaiak Ispasterko Udalaren Idazkaritza Sailean izango du egoitza (Elexalde auzoa, 9, Ispaster, Bizkaia).

SEIGARRENA.- Hautaketa-prozesuaren hasiera eta garapena.

Oposizioileak deialdi bakarrean deituko dira, eta, deitutako garaian ariketetara agertzen ez badira, automatikoki galduko da ariketa horretan parte hartzeko eskubidea.

Kalifikazio Epaimahaiak edonoiz eskatu ahal izango die hautagaiei euren burua behar bezala identifikatzeko. Horretarako, hautagaiek NANA eraman beharko dute oposizioko ariketa guztietara, edo, bestela, epaimahaiaren iritziz oposizioileen nortasuna behar den moduan egiaztatzen duen beste agiriren bat (pasaporte, gidabaimena...).

Kalifikazio Epaimahaiak jakingo balu, hautaketa-prozesuaren edozer unetan, hautagairen batek ez dituela betetzen deialdiko baldintza guztiak, interesdunari entzunaldia egin ondoren, esandako hautagaia baztertu egingo dute eta hautaketa-prozesua deitu duen agintaritzari horren berri emango zaio egun berean.

Probak hasitakoan, hurrengo iragarkiak Ispasterko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko dira, eta hurrengo ariketa egiteko eguna eta ordua gutxienez 48 ordu lehenago adierazi beharko dira. Ariketa bat amaitu eta hurrengo hasi artean gutxienez 72 orduko tarte izango da, nola eta ariketa egin behar duten hautagaiek ados daudela adierazten ez duten.

ZAZPIGARRENA.- Hautaketa-prozedura.



Elخالde auzoa, 9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tel.: 946 842 999 – 946 844 025
Faxa: 946 243 470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

Hautagaiak oposizio-lehiaketa sistemaren bidez hautatuko dira.

Oposizio-fasea gainditu duten hautagaiei soilik baloratuko zaie lehiaketa-fasea.

- Lehiaketa-fasea: (30 puntu)

Lehiaketa-fasea ez da baztertzailera izango, eta ezin izango da kontuan hartu oposizio-faseko probak gainditzeko.

Lehiaketa-fasea hautagaiak aurkeztu eta ziurtatu dituzten merezimenduen azterketa eta balorazioa egitea izango da, eta deialdiko berariazko baremoen arabera eurentariko bakoitzari dagozkion puntuak esleituta egingo da. Ezin izango dira inola ere baloratu aurkezteko epean behar bezala alegatu eta egiaztatu ez diren merezimenduak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte lortutako merezimenduak bakarrik zenbatuko dira.

Hauxe da deialdi honetarako merezimenduen baremoa:

1. Lan-esperientzia: 12 puntu.

Administrazio publikoaren barruan zerbitzu anitzeko langile-postuan edota peo-planetan izandako lan-esperientziagatik, baita enpresa pribatuetan emandako zerbitzuengatik ere, besteren kontura, elektrizitate, iturgintza, igeltserotza, lorezaintza, muntaketa, mekanika eta tankerako sektoreetan, kategoria bereko edo antzeko postuetan, eta deitutako lanpostuaren funtzio eta egiteko berdina edo antzekoekin: 0,0083 puntu lan egindako lan aldi osoan lan egindako egun bakoitzeko (kontuan izango dira zapatua, domekak edo jai izendatutakoak), gehienez 12 puntu. Lanaldi osoz lan egin ez den kasuetan, puntuazioa jardunaldiaren arabera murriztuko da.

Ondorio horietarako, abenduaren 26ko 70/1978 Legean agertzen direnak hartzen dira administrazio publikotzat, aurretik administrazio publikoan emandako zerbitzua kontuan hartze aldera.

Interesdunek Ispasterko Udalean emandako zerbitzuak ere alegatu beharko dituzte, baina ez dute edukiko frogatu beharrik. Izan ere, administrazioak berak zenbatuko ditu ofizioz. Gainerako administrazio publikoetan lanean emandako denbora, berriz, administrazio bakoitzak berariaz prestatutako ereduari adierazi beharko da. Kasu guztietan, lan egindako aldiak banakatu beharko dira, esandako aldi horiek zer kidego edo eskalatan, azpi-eskalatan eta klase edo kategoriatan izan diren zehaztuta. Halaber, jardunaldiaren ehunekoa ere eman beharko da.



Elexalde auzoa, 9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tel.: 946 842 999 – 946 844 025
Faxa: 946 243 470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

Enpresa pribatuan izandako lan-esperientzia egiaztatzeko, nahitaez aurkeztu beharko da lan-bizitzaren ziurtagiria, baita hautagaiak izan duen lanpostua eta bete dituen eginkizunak egiaztatzen dituzten kontratuen kopia edo enpresaren ziurtagiria ere.

2. Prestakuntza: 18 puntu.

2.1.- Elektrizitatearekin, iturgintzarekin, igeltserotza-eraikuntzarekin, lorezaintzarekin edo mekanikarekin lotutako Lanbide Heziketako titulazioak (2 puntu LHko erdi-mailako titulazio bakoitzeko, eta 3 puntu LHko goi-mailako titulazio bakoitzeko): 16 puntu gehienez.

2.2.-. Administrazio publikoetan, administrazio publikoen eskoletan (IVAP, INAP, IEAP edota bestelako administrazio-eskoletan) emandako/jasotako ordu kopurua, baita nortasun juridiko publikoko zentroetan izandako trebakuntza-ikastaroak ere, lanpostuaren ezaugarriekin zuzenean lotuta egonik eta plaza eskuratzeko eskatutakoa baino maila handiagoko trebakuntza eta titulazioa eskatzen ez badute: 0,01 puntu ordu bakoitzeko. 2 puntu gehienez.

Kalifikazio Epaimahaiak oposizio-fasea gainditu dutenen merezimenduak baino ez ditu balioetsiko.

- Oposizio-fasea: 70 puntu.

Oposizio-faseak honako proba hauek izango ditu:

Oposizio fasean bi (2) ariketa egingo dira. Biak ere nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira:

1. Lehenengo ariketa: ariketa teorikoa. Nahitaezkoa eta baztertzaila. Erantsitako gai zerrendari buruzkoa (I. eranskina). Aukera anitzeko galdera-sorta idatziz erantzun beharko da, epaimahaiak ezarritako denboran. Gehienez 30 puntu lortu ahal izango dira.

Ariketa zuzentzerakoan, zuzen erantzundako galdera-kopuruari akatsen herena kenduko zaio ($E = Z - A/3$). Erantzun gabeko galderak eta erantzun bikoitza dutenek ez dute zigorrik izango.

Epaimahaiak, ariketa-egileen izenak jakin aurretik zehaztuko du proba gainditzeko gutxienez lortu beharreko puntuazio

2. Bigarren ariketa: Lanpostua betetzeko ezinbesteko eta berezko trebetasunak ebaluatzeko ariketa praktikoak.

Kalifikazio Epaimahaiaren irizpidearen arabera, zerbitzu anitzeko postuaren funtzioekin lotutako proba praktikoak egingo dira, Udalak egun dituen postuei dagozkienak, hain zuzen.



Elexalde auzoa, 9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tel.: 946 842 999 – 946 844 025
Faxa: 946 243 470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

Gehienez 40 puntu lortu ahal izango dira proba horretan. Prozesutik baztertuta geldituko dira proban gutxienez 20 puntu lortzen ez dituztenak.

Zehazkiago, eta epaimahaiak har dezakeen beste edozein erabakiri kalterik egin gabe, honako hauen ingurukoa izan daiteke proba praktikoa:

Udal-zerbitzuek behar izan ditzaketen konponketak, mantentze- edota kontserbatze-lanak eta bestelakoak. Baliteke horietarako makinak behar izatea; horrenbestez, hautagaiek oinetako eta arropa egokiekin aurkeztu beharko dute.

Proba horiek egiteko, Kalifikazio Epaimahaiak ariketa egiteko behar diren elementu guztiak emango dizkie hautagaiei. Ariketa horretan, funtsean, lanak egiteko garaian izandako gaitasuna, perfekzioa, ezagutzak eta zuzentasun teknikoa hartuko dira kontuan.

Hala balegokio, Kalifikazio Epaimahaiak adierazitako proben ordena aldatu ahal izango du, baita egun berean proba bat baino gehiago egitea erabaki ere.

ZORTZIGARRENA.- Ariketak berrikustea eta kopia eskuratzea.

Eginiko ariketa bakoitza berrikusteko eskaerak hamar egun baliodunen barruan bakarrik onartuko dira, ariketan lorturiko emaitzak argitaratzen diren egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Halaber, lehiaketa-fasean lorturiko puntuazioa berrikusketako eskaerak hamar egun baliodunen barruan soilik onartuko dira, lehiaketa-fasean lorturiko emaitzak argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Ariketen zein lehiaketa-fasean lorturiko puntuazioaren berrikuspena kalifikazio-arrazoiei buruzko informazioa emateko bakarrik izango da, Kalifikazio Epaimahaiak hartutako irizpideekin bat. Hala, ezin izango da kalifikazioa aldatu izapide horretan, nola eta ez diren akats aritmetikoak edo izatezko akatsak topatzen.

Berrikusteko eskaerak idatziz aurkeztu beharko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015) eskaerak aurkezteko ezarritako edozein tokitan.

Oposizio-faseko ariketak edota lehiaketa-fasean lorturiko puntuazioa berrikusteko eskaerak izapidetzeko, xede horrekin apropos prestatutako eredu ofiziala bete beharko da. Hain zuzen ere, Udalaren webgunean eskuratu ahal izango dute izangaiek.

Eginiko ariketak eta lehiaketa-fasean lorturiko puntuazioa berrikusteko lehen paragrafoan ezarritako epeak amaitutakoan, Kalifikazio Epaimahaiak balizko alegazioak ebatziko ditu, eta behin betiko zerrenda argitaratuko, guztizko puntuazio-ordenaren arabera. Epe horiek igarotzen badira eta hautaketa-prozesuko izangaiek ez badute alegaziorik aurkezten, behin betikotzat joko da hautaketa-probaren azken kalifikazioekin iragarki-taulan eta Udalaren webgunean eginiko lehen argitalpena.



Elexalde auzoa, 9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tel.: 946 842 999 – 946 844 025
Faxa: 946 243 470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

Halaber, izangaiak hautaketa-proban eginiko azterketaren kopia lortzeko eskaera ere idatziz aurkeztu beharko da arestian aipaturiko legeriarekin bat etorritz, eta azterketak berrikusteko eskaeren epe berbera izango da.

BEDERATZIGARRENA.- Kalifikazio Epaimahaiak gaindituen zerrendari buruz eginiko proposamena.

Azken kalifikazioa oposizio-lehiaketako fase bietan lortutako puntuazioen baturak emango du, eta emaitza horrek zehaztuko du lan-poltsarako izangaien hurrenkera.

Ariketen kalifikazioa amaitutakoan eta behar bezala aurkeztutako merezimenduak egiaztatu eta balioetsi ostean, Kalifikazio Epaimahaiak proposaturiko hautagaien zerrenda argitaratuko da.

Berdinketa gertatuz gero, oposizio-aldian puntu gehien lortutakoa ipiniko da aurrena. Berdinketak jarraitzen badu, lehiaketa-fasean lorturiko puntuaziora joko da. Berdinketak jarraitzen badu, zozketara joko da. 6/1989 Legearen 27.2 artikulua arabera, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 4/2005 Legeak emandako idazketari jarraikiz, gaikuntza-berdinketa gertatuz gero, administrazioaren kidego eta eskala zein kategorietan emakumeei emango zaie lehentasuna, baldin eta horietan emakumeen ordezkariak % 40 baino txikiagoa bada; nola eta beste hautagaien batek, sexu-bereizkeria ez izanik, neurri hori ez aplikatzeko arazoak ez baditu (esate baterako, lana lortzeko zailtasunak dituzten talderen bateko kide izatea).

Udalaren iragarki-taulan eta webgunean iragarkia jarrita argitaratuko dira ariketa bakoitzaren puntuazioak.

Hautaketa-prozesuaren ondoriozko gaindituen zerrendak baliozkoak izango dira aldi baterako lan-kontratudun langile izendatzeko, betiere indarrean den araudian ezarritako kasuak gertatzen badira. Hala, aldi baterako zerbitzuak emateko Udalaren lan-poltsan sartuko dira.

HAMARGARRENA.- Izendapena, proba-aldia eta prestakuntza.

Hautaketa-prozesuan aurkeztu eta hautaketa-probako oposizio-fasea gainditu duten izangaiekin osatuko da lan-poltsa; horretarako, hautagai bakoitzak lorturiko guztizko puntuazioaren arabera ezarriko da lehentasun-ordena, oposizio-fasean eta lehiaketa-fasean lorturiko puntuazioak batu ondoren.

Lan-poltsaren helburua Udalaren aldi baterako lan-beharrak betetzeko hautagaiak aukeratzea izango da, aldi baterako lan-kontratazioko araubidean, betiere enplegatu berriak



Elخالde auzoa, 9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tel.: 946 842 999 – 946 844 025
Faxa: 946 243 470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

behar baldin badira eta bete beharreko lanpostua deialdi honen xedeak jasotakoaren antzekoa bada.

Egoera hauetako batean egongo dira lan-poltsan sartutako hautagaiak:

- «libre edo lanerako prest»;
- «etenaldian».

Lan-poltsan «libre edo lanerako prest» egoeran dauden hautagaiei baino ez zaie deituko.

Udalean beharrak sortzen badira eta lan-poltsaren bidez bete behar badira, hautagaiari eskatuko zaio aurkez ditzala, hamar egun baliiodunen barruan, deialdiaren oinarrietako betekizunak egiaztatzen dituzten dokumentuak, baita aplikatu beharreko araudian ezarritako gainerakoak ere.

Izangaiarekin harremanetan jartzeko, gehienez hiru ahalegin egingo dira bi egunen barruan, telefono edo telematika bidez.

Deitutako hautagaiak onartu egin beharko du proposamena, eta, ukatuz gero, arrazoitu egin beharko du idatziz. Hartara, zerrendako lehenetsun ordena berean jarraituko du; aurkeztu ezean, berriz, behin betiko baja emango zaio lan-poltsatik.

Oro har, hauexek aurkeztu beharko dira:

1. Nortasun Agiri Nazionalaren edo agiri baliokidearen fotokopia konpultsatua; nortasuna, nazionalitatea eta jaioteguna azalduko dira.

Atzerritarra izanez gero, agiriaren bidez egiaztatu beharko da oinarrietako betekizunak betetzen dituela.

2. Lanposturako eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua, edo titulua lortzeko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria.

3. Ispasterko Udalak zehaztutako zerbitzu medikuek egindako osasun ziurtagiria, eginkizunak betetzeko gaixotasunik eta akats fisiko zein psikikorik ez duela egiaztatzeko.

4. Diziplinazko espedienteren baten bidez edozer administrazio publikotan zerbitzutik kanpo utzi ez dutela eta eginkizun publikoak betearazteko ezgaituta ez dagoela adierazteko aitortpena.

Atzerritarrek egiaztatu beharko dute ez daudela, euren estatuan, funtzio publikoan jardutea eragozten dien diziiplina-zehapenaren edo kondena penalaren mende.



Elexalde auzoa, 9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tel.: 946 842 999 – 946 844 025
Faxa: 946 243 470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

5. Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko Legean (abenduaren 26ko 53/1984) aurreikusitakoa kontuan hartuta, bateraezintasunagatiko legezko auziren baten mende ez dagoela adierazteko aitorpena.

6. Lanposturako eskatutako gainerako betekizun espezifikoetarako agiriak aurkeztea.

Adierazitako epe horren barruan, eta ezinbestean ez bada, agiriak aurkezten ez badituzte edo eskaturiko baldintzak ez dituztela betetzen egiaztatzen bada, ezin izango dira izendatu eta baliorik gabe geldituko dira haien jarduketa guztiak, eskabidean faltsutzeagatik izan lezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Hautagaia baztertuz gero, Kalifikazio Epaimahaiak zerrendako hurrengoa gaindituen zerrendan sartzea proposatu ahal izango du, betiere hautaketa-probak gainditu baditu eta hautaketa-probetan lorturiko ordena berean.

Eskatutako dokumentazioa aurkeztutakoan, aldi baterako lan kontratua egingo da Ispasterko Udalaren Obra eta Zerbitzu Sailerako. Kontratuak hilabeteko proba-aldia izango du.

Kontratua amaitutakoan, ofiziozko lan-poltsan sartuko da berriro hautatua, hasieran zuen ordenan, berriro noiz deituko zain.

HAMAIKAGARRENA.- Aktak.

Kalifikazio Epaimahaiaren idazkariak epaimahaiaren jardueren aktak idatziko ditu, eta bertan, zuzenketa-irizpideak, hautagaien emaitza partzialak eta azken emaitzak, hautatutako pertsonari buruzko proposamena, gertatutako gorabeherak eta hautaketa-prozesuko beste inguruabar garrantzitsuak azalduko dira gutxienez.

HAMABIGARRENA.- Gorabeherak.

Kalifikazio Epaimahaiak ahalmena du agertzen diren zalantzak ebazteko. Halaber, oinarri hauetan ezarrita ez dagoenari dagokionez, beharrezko erabakiak hartu ahal izango ditu, ordena onari eusteko eta lehiaketa-oposizioa behar bezala egiteko.

HAMAHIRUGARRENA.- Aurkaratzeak.

Interesdunek deialdia, oinarriak eta horietatik zein Kalifikazio Epaimahaiaren jardueraren ondorioz sor daitezkeen administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

Ispasterren, 2017ko martxoaren 30ean.

Alkatea

Garbiñe Saenz de Buruaga



Elexalde auzoa, 9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tel.: 946 842 999 – 946 844 025
Faxa: 946 243 470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

I. ERANSKINA. GUZTIONTZAKO GAI-ZERREDA

1. GAIA: Ispaster udalerriari buruzko ezagutzak: kale-izendegia, sarbideak, baserri-bideak, kaleen izenak, auzoak, eta baserriak. Garraio- eta hornidura-azpiegiturak. Eraikin publikoak.
2. GAIA: Ispaster udalerriari buruzko ezagutzak: orografia, geografia, inguruko parajeak eta mendiak, ibaiak eta errekek.
3. GAIA: Ispaster udalerriari buruzko ezagutzak: kultur ekitaldiak eta jaiegun seinalatuenak. Monumentuak eta intereseko tokiak. Datu soziodemografikoak. Ispasterko historia.
4. GAIA: Eraikuntza, obra zibila, elektrizitatea, iturgintza eta igeltserotza.
5. GAIA: Eraikinen eta altzari publikoen mantentze- eta kontserbatze-lanak. Prebentzio- eta zuzenketa-jarduerak, irizpideak eta lehentasunak. Udal-sare eta -zerbitzu publikoen mantentze-lanak, matxurak eta konponketak: edateko ura, saneamendua, argiteria eta abar. Nozio orokorrak.



Elexalde auzoa, 9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tel.: 946 842 999 – 946 844 025
Faxa: 946 243 470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net